

GUGGENHEIM BILBAO

Guggenheim Bilbao Museoa 2014ko martxoaren 14an aurkeztuko du

Yoko Ono. Half-A-Wind Show. Atzera begirakoa



Babeslea:





Enpresek kontu handiz aukeratu behar dituzte beti zer proiektuetan inbertitzen duten; are argiagoa da behar hori gaur egun, egoera zail honetan.

Seguros Bilbao-k eta Fundación Jesús Serra-k ez dugu inoiz zalantzarik izan Guggenheim Bilbao Museoan, proiektu honetan, parte hartu behar genuela; izan ere, kultur erakunde gailena da, bai eta Bilbo berriaren irudi ere.

Horregatik gure laguntza eman diogu irekieratik, 16 urtez baino gehiagoz. Eta horregatik parte hartu nahi dugu Yoko Onori eskainitako erakusketa berezi honetan: gure hirira ekarri du gura garaiko ikono kultural bat, funtsezko artista bat.

Guggenheim Bilbao Museoarekin batera ilusioz babesten dugu artea, haren alderdi guztiak, publiko orok gogoko izan dezan.

Iñaki Álvarez

Grupo Catalana Occidente-ko aholkulari ordezkaria

Yoko Ono. Half-A-Wind Show. Atzera begirakoa

- Komisarioak: Ingrid Pfeiffer, Schirn Kunsthalle Frankfurtoko komisarioa; Álvaro Rodríguez Fominaya, Guggenheim Bilbao Museoko komisarioa; Jon Hendricks, Yoko Ono Exhibitionseko komisarioa
- Data: 2014, martxoak 14–irailak 4
- Schirn Kunsthalle Frankfurten erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarlanean
- Babeslea: Seguros Bilbao

2013. urtean artistak laurogei urte bete zituela-eta taxutu zen [Yoko Ono. Half-A-Wind Show. Atzera begirakoa](#) erakusketa. Orain, 2014ko martxoaren 14tik irailaren 4ra, izango da Guggenheim Bilbao Museoan. Yoko Onok eragin handia izan du gure garaiko artean: arte plastikoetan, musikan zein zinema esperimentalean leku garrantzitsua betetzen du. Mito bizi honi buruz orain arte egindako atzera begirako zabalena da hau.

Seguros Bilbaok babestutako erakusketa honetan berrehun bat lan biltzen dira Museoko hirugarren solairuan barrena. Yoko Onok 1950eko hamarkada erditik gaur egunera arte sortutako unibertso artistiko anitza erakusten dute; tartean daude sorkuntza berrienak, esaterako, *Mendi mugikorak* (*Moving Mountains*) instalazioaren bertsio berri bat ere (performance modua ere har daiteke).

Hirurogei urtetik gorako ibilbide artistikoari esker, Yoko Ono (Tokio, 1933) abangoardiako artista esanguratsuenetako bat da. Zenbait joera eta diziplinen aitzindari izan da, hala nola, Arte Kontzeptualean, zinema esperimentalean eta performancean; halaber, musikaren munduan ere leku gailena du, eta disko ugari ekoitzi ditu.

Bisitariak Museoko hirugarren solairuan Onok ibilbide luzean landutako baliabideak ezagutzeko aukera izango du: besteak beste, arte plastikoak, marrazkiak, poesia, zinema, musika, instalazioak, bideoak eta performanceak. Artelanak askotarikoak dira: euskarri heterogeneo horiek erabiltzen ditu artearen ohiko ideiei desafio egiteko eta giza existentziari buruzko galderak planteatzeko.

Jorratutako gaiak ere anitzak dira, baina funtseko ideia batzuk gailentzen dira: irudimenak duen ahalmenean sinesmena, konpromiso politikoa, umorea eta absurdua ulertzeko moduak eta munduko gatazken aurreko eta emakumeak gizartean betetzen duen paperarekiko sentikortasuna, besteak beste. Ideia horiek artistak bizitakoa edota gai unibertsalak dituzte

abiapuntu, eta horiek lantzea artistak bakearen edo feminismoaren inguruko mugimenduetan leku nabarmena betetzera eraman dute

Ekialdeko tradizioari lotutako zenbait elementuk Yoko Onoren lanak aberasten dituzte. Artistaren lana ideietan oinarritzen da eta ideia horietako batzuk objektuak baliatuta adierazten ditu, beste batzuk, ordea, ez dira materialak. Obra horietan, sarritan, dimentsio poetikoa, umore fina eta kritika soziala antzeman daitezke, betiere batasuna, konfiantza edo oreka kontzeptuen inguruan dabilzala.

Yoko Onoren lanetako askok bere *Jarraibideak* dituzte abiapuntu, hots, artistak ekintza utopiko zein egingarriak burutzeko ikuslearentzat sortutako ahozko edo idatzizko jarraibideak. Horrela, prozesu horretan egileak paper aktiboa esleitzen dio ikusleari, eta parte hartzera eta autohausnarketan eta adimenaren indarrean sakontzera bultzatzen du.

Zenbait obraren alboan ageri den “Parte hartu” hitza Yoko Onok bere obrarekin elkarrekintzan aritzeko egindako gonbidapen zuzena da. Elkarrekintza hori *Sarrera (En Trance, 1998/2013)* obraren bidez gauzatuko da; Yoko Onoren instalazio arkitektonikoetako bat da eta ikusleei erakusketarako ongi etorria ematen dien beirazko ate birakari batek eta errezel batek osatzen dute.

Lehen instalazioak, filmak eta objektuak

Yoko Ono 1933an jaio zen Tokion eta Japonia eta AEB artean igaro zuen haurtzaroa. 1952. urtean, AEBetara mugitu zen familia guztia New York kanpoaldeko Sarah Lawrence Collegean ikas zedin. Konposizio eta poesia garaikideari buruzko ikasketak egin zituen eta New York hiri abangoardistan murgildu zen, baina artista gisa 1950eko hamarkadaren amaieran lortu zuen ospea, arte kontzeptualaren eta performanceen arloan egindako obra esperimental berritzaileei esker.

Erakusketaren lehen atalean hasierako performance eta testuen argazki eta filmen dokumentazioa dago ikusgai, artistaren artelan fisikoekin batera.

Bestalde, honako lan hauek Yoko Ono abangoardia japoniarraren eta estatubatuarraren barruan behin betiko finkatu zuten: 1961. eta 1962. urte bitartean idatzitako *Jarraibideen pinturak (Instructions for Paintings)*, 1964ko *Mozte lana (Cut Piece)* performance ezaguna, eta urte hartan bertan argitaratutako *Pomeloa* liburua. Egun indarrean dirauen jarraibide bilduma da, eta, pieza poetikoa ez ezik, artelan baten produkzioa sustatzeko eskuliburua ere bada. Fluxus mugimenduaren sorreran –George Maciunas artista, diseinatzaile, arkitekto eta galeristak sortutakoa– parte hartu zuen.

Paintings & Drawings by Yoko Ono erakusketa inauguratu zuen New Yorkeko AG Galleryn 1961eko uztailaren 16an. Bertan erakutsitako obrek, formatuari dagokionez salbu, ez zuten ohiko margolanekin inolako antzekotasunik. Tenkatu gabeko mihise zatiak ziren, tinta japoniarra erabiliz margotutakoak, eta lurrean jarrita –*Zapaltzeko pintura (Painting to Be Stepped On)*

obra, esaterako– edo leiho eta hormetatik zintzilik zeuden. Artistak, batzuetan, bisitariek “margolan” horien aurrean hartu beharreko jarrerari buruzko ahozko jarraibideak eskaintzen zituen: ekintza errealak bete behar zituzten, esate baterako, *Ur tanta pintura (Waterdrop Painting)* obran ura tantaka jarritz, edo irudimenaz baliatu behar ziren *Pintura haizearentzat (Painting for the Wind)* obran bezala. Museoak George Maciunasek egindako jatorrizko argazkiak ere bildu ditu.

Areto horretan bertan, *Sabai pintura (Ceiling Painting)* obra dago ikusgai, Onok 1966an Londresko Indica Galleryko erakusketan aurkeztutakoa. Lan honek ikuslea buruan ekintza bat irudikatzen du, honako hau imajinatzen: eskailera zuri bat igotzen duela, goraino, eta bertan, sabaitik, marko batetik, kate batez zintzilik dagoen lupa bat erabiltzen duela markodun beira baten azpiko “jarraibidea” irakurtzeko; “BAI” esaten du. Lan honen bidez ezagutu ziren Yoko Ono eta John Lennon., izan ere, obrak transmititzen zuen baikortasunak hunkituta, artista ezagutzea eskatu zuen Lennonek.

Ibilbide honetan, halaber, *Gela erdia (Half-A-Room, 1967)* eta *Aire banatzaileak (Air Dispensers, 1971)* obrak ikus ditzakegu. Lehenak, gela bat irudikatzen du, eta, bertan, objektu guztiak, maleta batetik hasi eta zapata pare batera iritsiz, erdira murriztuta eta zuriz margotuta daude. Obraren gaia erdibiketa fisiko zein psikikoa da, Onoren ustez giza existentziaren ezaugarria dena. Bestetik, *Aire banatzaileak* obrak gozokien banatzaile bat irudikatzen du, kasu honetan, ordea, itxuraz hutsik dauden kapsulez betea. Plastikozko ontzi horiek, hala ere, zerbait preziatua dute barruan: airea, artistaren ustez “partekatzen dugun gauza bakarra”.

Oinarrizko performanceak

Erakusketarekin jarraituz, performanceari buruzko atal espezifiko bat dago; artista aitzindaria izan da diziplina horretan eta leku esanguratsua betetzen du. Berez, performancearen artearen “urrezko aroa” izendatutakoaren artista esanguratsuenetako bat da.

1964ko amaieran, Tokiotik New Yorkera itzuli zen berriz ere Yoko Ono eta bertan hiru urte igaro zituen; berehala murgildu zen hiriko bizitza artistikoan. Testuinguru horretan, 1966. urtean *Destruction in the Arts Symposium (DIAS)* ekitaldian parte hartu zuen Londresen; beste batzuen artean, Gustav Metzgerrek antolatzen zuen nazioarteko ekitaldi hau eta mundu osoko artista nabarmenek parte hartu zuten.

Areto honetan, zenbait dokumentu baliatuta, artistaren performance ezagunena dago ikusgai: *Mozte lana (Cut Piece, 1964)*. Kioton estreinatu zuen 1964an eta performancearen artearen historiako mugari gisa jotzen da. Bertan, artista belauniko edo eserita, agertokira igotzeko gonbitea luzatzen zien ikusleei. Behin bertara igota, guraizeak erabiliz zeraman soinekoaren zatiak moztea eskatzen zien.

Lehoia biltzeko ekitaldia (Lion Wrapping Event, 1967) da artistak burututako ekintza zirrargarrienetako bat; Londresko Trafalgar Square plazako lau lehoi handiak biltzean

oinarritzen zen ekintza. Papera erabilia egindako lehen saiakera poliziak eragotzi zuen. Bigarren saiakeran ehuna erabili zuen eta arrakastatsua izan zen, film bat grabatzen ari zela adierazi baitzuen artistak. Yoko Onoren ekintza hau aldarrikapen politiko gisa hartu zen, Inperio Britainiarreko sinbolo tipikoetako bat ezabatzeko saiakera baitzen.

Areto horretan, halaber, 1971eko (*Ipur*)*Arte Moderno Museoa* [*Museum of Modern (F)Art*] ekintza dokumentatzen duen materiala erakusten da. Pieza hau zinez ironikoa eta iraultzailea da, eta artistak, *The Village Voice* AEBko egunkarian argitaratutako iragarki bat erabiliz, New Yorkeko Museum of Modern Art (MoMA) museoan bere bakarkako fikziozko erakusketa bat ezagutzera eman zuen.

“The Museum of Modern Art” izeneko zazpi minutuko filmazioan, Yoko Onoren erakusketa ikusi zuten galdetu zitzaizen oinezkoek. Gehienek honen antzeko zerbait erantzun zuten: “Ez, baina ikusteko asmoa dut”. Yoko Onok jendearen arreta piztu nahi zuen museoak arte erakusketa oso gutxi, emakume artistei buruzkoak bereziki, burutu zituela ohartarazteko.

Zinema esperimentalak

Onoren filmek ere leku esanguratsua betetzen dute artearen historia berrian. Musikarekin eta performanceekin izandako lehen esperientzia artistikoen ostean –horietako batzuk Fluxus mugimenduaren barruan–, 1964. urtean gidoi eta film kontzeptualak lantzeari ekin zion artistak. 1972ra arte, guztira, 19 film ekoitzi zituen, horietako batzuk John Lennonekin batera.

Artistak bere obran agerian dauden gaiekiko kezka adierazten du underground zinemako proposamenetan, esaterako, gorputzarekiko kezka, emakumeen eskubideekikoa edo barne askatasunaren bilaketa pertsonalari lotutakoa. Museoko areto batek, besteak beste, osotasunean jasotzen du 1969ko *Bortxaketa (Rape)* lana. John Lennonekin lankidetzan grabatu zuen film hau Londresen, eta, bertan, kamerari bat eta soinu teknikari bat bi egunez kalean ausaz hautaturiko neska baten atzetik dabilta. Etengabe filmatuz jazartzen dute, inolako baimenik eskatu gabe, neskarengan erantzun etsiak eraginez.

1970eko *Eulia (Fly)* film ospetsua ere ikusgai dago areto honetan. Emakume baten gorputz biluzi eta geldian barrena dabilen euli baten lehen planoak erakusten du, eta ikusleak “gorputz paisaia” bitxiak eta bereziak intsektu baten ikuspuntutik ikusteko aukera du.

1966ko *Filma 1. zk. (Pospolo lana)* [*Film No. 1 (Match Piece)*] filmak sutan eta kontsumitzen ari den pospolo baten prozesu sinplea erakusten du, lehen planoan eta kamera oso geldoan. Fenomeno sinplea da, baina, era berean, hurbiletik begiratuz gero, hausnarketa eragiten duen zer edo zer erakusten du. Zentzu metaforikoan ere interpreta daiteke lan hau: giza existentzia laburra, piztu, denbora laburrean argitu eta berriro desagertzen da.

Azken instalazio eta obrak

Ibilbidean aurrera eginez, azken hamarkadetan egindako formatu handiko instalazioak ikus ditzakegu, bai eta zenbait produkzio lan ere, horien artean, *Ur ekitaldia* (*Water event*, 1971/2013). Lan hau 1971n Syracuseko Everson Museum of Art-en berari buruz egindako lehen atzera begirakoan aurkezteko egin zuen Yoko Onok. Lan hau burutzeko, bere lagunei parte hartzea eskatu zien artistak, honako gonbidapen hau luzatuz:

“Yoko Ono wishes to invite you to participate in a water event by requesting you to produced with her a water sculpture by submitting a water container or idea of one which would form half of the sculpture. Yoko will supply the other half – water”.

120 lagun inguruk parte hartu zuen, horien artean, Andy Warhol, Jasper Johns eta Willem de Kooning artistek, John Cage musikagileak, John Lennon edo Bob Dylan musikariek edo Jack Nicholson aktoreak. Gonbidatuek ekarritako ur edukiontzia askotarikoak izan ziren, George Harrisonen esne botilatik hasi eta Robert Watts-en Volkswageneraino. Bilbon, bisitariak obra honen bertsio berri bat ezagutzeko aukera izango du eta, besteak beste, Olafur Eliasson, Christian Marclay, Pilar Albarracín, Txuspo Poyo, Asier Mendizabal eta Vasco Araujo artisten ekarpenak ikusiko dira. Yoko Onoren arabera, urak esanahi eta metafora aukera zabala irudikatzen du. Bizirik irauteko oinarrizko baliabide unibertsala da eta, horrenbestez, baita igualitarismoaren sinbolo ere. Giza gorputzaren osagai nagusia da, gainera, eta, horrenbestez, irudikatu egiten gaitu hein batean.

Telefonoa labirintoan (*Telephone in Maze*) (1971/2011/2013) instalazioa ere ikusgai egongo da: plexiglasezko labirinto bat da eta bere bideek gela batera daramate. Espazio nagusi honetan zentzu bakarreko ispilu bat dago, barruan daudenei kanpokoak ikusteko aukera ematen diena, baina, era berean, kanpoan daudenen aurrean partzialki ezkutatzea ahalbidetzen diena. Kabina honen barruan telefono bat dago eta Yoko Onok berak aldizka hots egiten du publikoko pertsona batekin hitz egiteko. 1960ko hamarkada hasieran, eta baita 1950eko hamarkadan ere, jada arkitekturarekiko interesa agertu zuen Onok. Obra honek jolas egiten du bisitariaren pertzepzio eta orientazio fisikoarekin, ustekabeko esperientzia bat eragiteko xedearekin.

Areto honetan *Oreka lana* (*Balance Piece*, 1997/2010) obra harrigarria ikus dezakegu. Instalazio honek logela bat irudikatzen du eta, bertan, iman elektriko indartsu bat dago ezker alboko horman jarrita. Horrela, bertan kokatutako elementu guztiak bat-batean ezkererantz mugitzen dira. Lan honen bidez zen budismoko ideia nagusiak arakutzen ditu artistak, hala nola, “oreka mentalaren” bilaketa, kontrakoan arteko erdibideko puntua lortzeko saiakera edo autokontzientzia.

Areto honetan, halaber, *Oroitzapen bertikala* (*Vertical Memory*, 1997) obra ikusgai dago; 21 testuz lagundutako 21 argazkiz osatutako serie honek bizitzaren bidaian barrena bideratzen gaitu, jaiotzetik heriotzaraino. Seriea sortzeko moduz honako hau adierazi du artistak: “Aitaren, senarraren eta semearen argazkiak biltzen sortu nuen. Norabide berean begiratzen zeuden

argazkiak aukeratu nituen, bata bestearen gainean ipini nituen eta nahastu nituen. Argazki bakoitzak gizon bat erakusten du, bizitzako une garrantzitsu bat igarotzen nuela begiratzen ninduen”.

Arkitektura eta naturaren irudikapena

Museoko petalo formako beste areto batean, espazioa erabat modu dramatikoan betetzen duten bi instalazio jarri dira. Obra bereziak balira bezala sortu ziren, sarritan, osagarriak direnez, elkarrekin erakutsi izan badira ere: *Goizeko izpiak* (*Morning Beams*, 1996/2013) eta *Ibai zola* (*Riverbed*, 1996/2013). Nylonezko ehun soka zurik argi-izpiak iradokitzen dituzte *Goizeko izpiak* obran, aretoko sabaitik lurzoruraino iritsiz, eta, lurzoruan, marinel korapiloekin finkatuta daude.

Aurreko obrak bestelako izaera duen obra batekin batera kokatu dute espazio berean: *Gela urdineko ekitaldia* (*Blue Room Event*), 1966koa. Artistak berak idatzitako hitzak aretoko hormetan erabiltzean datza sorkuntza hau; espazioaren gaineko ohiko pertzepzioa iraultzea da xedea. Honako hau irakur daiteke obra honen jarraibideetan: “Stay until the room is blue./This window is 2000 ft. wide./This room is bright blue./This room slowly evaporates every day. /This room glows in the dark while we are asleep.”

Mendi mugikorrak obrak ematen dio amaiera Yoko Onoren instalazioetan barrena egindako ibilbideari; obraren bertsio berria erakusketa honetarako espresuki egindakoa da. Obra honek aretoan barrena kokatutako poltsetan sartzeko gonbitea egiten dio publikoari, banaka zein beste pertsona batzuekin batera, era horretara, eskultura mugikorrek sortzeko, eta Yoko Onoren *Moving Mountains* kantuarien –*Between My Head And The Sky* diskoari dagokiona– eritmoari jarraituz.

Erakusketari amaiera emateko, artistaren musika produkzioari buruzko gune bat antolatu da. Bideoak, kontzertuen grabazioak, CD eta LPen azalak, kontzertuen posterrak eta soinu-estazioak jasotzen ditu guneak, eta artistaren musika entzuteko aukera dago, bai eta Yoko Onok egindako kolaborazioak barne, Sean semearekin esaterako. 1970. urtean *Yoko Ono/Plastic Ono Band* diskoa kaleratu zuen, bere musika ibilbide etengabearen mugarri dena.

Amets egin, hegan egin, imajinatu

Yoko Onok hiriko espazioak erakusketaren espazioaren luzapen gisa erabili ohi ditu. Bilboko erakusketaren harira, iragarki panelak jarriko dira hirian zehar hautatutako hainbat lekutan. Honako mezu hauek hautatu ditu artistak: «AMETS EGIN» («DREAM»), «HEGAN EGIN» («FLY») eta «IMAJINATU» («IMAGINE»). Hitz horiek, hiriaren bizitza bizkorraren aurrean, pentsatzeko etenaldi poetiko gisa uler daitezke.

Katalogoa

Erakusketari lotuta, gaztelaniaz egindako katalogoa argitaratu du Guggenheim Bilbao Museoa, Ingrid Pfeifferrek eta Max Holleinek, Jon Hendricksen laguntzarekin, egindakoa. Katalogo honetan Yoko Onoren obraren alderdi nagusiei buruzko saiakerak egin dituzte Ingrid Pfeiffer, Jon Hendricks, Alexandra Munroe, Kerstin Skrobaneck, Kathleen Bühler eta Jörg Heiser adituek. Bestalde, Yoko Onoren zenbait testu jasotzen dira, bai eta testu eta irudien kronologia bat ere.

Gune didaktikoa

Erakusketaren osagarri gisa, Yoko Ono funtsezko artista moduan erakusten duen gune didaktikoa antolatu da eta, bertan, testuak, irudiak eta bideoak erabiliz, artistaren ekoizpen artistikoaren oinarritzko ideiak azaltzen dira, esaterako, bere *Jarraibideak*, performancea, aktibismoa edo parte-hartzea.

Azalaren irudia:

Yoko Ono
Walking On Thin Ice (bideo fotograma), 1981
© Yoko Ono

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Marketing eta Komunikazio Arloa
Tel. +34 944359008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es

Prentsa irudiak:
Yoko Ono. Half-A-Wind Show. Atzera begirakoa
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90

08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es


1. *Kolorea gehitzeko pintura (Add Color Painting)*, 1960/1966

Pintura, egunkaria eta aluminio-papera mihise gainean

40 x 40 cm

Bilduma pribatua

© Yoko Ono



2. *Sabai pintura, bai pintura (Ceiling Painting, Yes Painting)*, 1966

Testua paperean, beira, metalezko markoa, metalezko katea, lupa, margotutako eskailera

Eskailera: 183 x 49 x 21 cm, markodun testua: 64,8 x 56,4 cm

Bilduma pribatua

Argazkia: Oded Löbl © Yoko Ono



3. Irargaria: *(Ipur)arte moderno museoa [Museum of Modern (F)Art]*, 1971

Village Voice-n argitaratua, 1971ko abenduaren 2an

Bilduma pribatua

© Yoko Ono



4. Fotograma: *Filma 4. zk. (Ipurdiak), fluxus filma 16. zk. [Film No. 4 (Bottoms), Fluxfilm No. 16]*, 1966

Digital bihurtutako 16 mm-ko filma, zuri beltzean, soinurik gabekoa, 5 min 30 s

Bilduma pribatua

© Yoko Ono



5. Fotograma: *Eulia (Fly)*, 1970

Protagonista: Virginia Lust

Digital bihurtutako 16 mm-ko filma, koloretakoa, soinuduna, 25 min

Soinu-banda: Yoko Ono

Bilduma pribatua

© Yoko Ono



6. *Egin hegaz (Fly)*, 1996

Iragarki panelak

Neurri aldakorrek

Bilduma pribatua

© Argazkia: Stephen Salpukas

Honen eskaintza: Yoko Ono



7. Yoko Ono eta John Lennon durante *Ohean bakearen alde (Bed-In for Peace)* performancea antzezten

Hilton Hotela, Amsterdam, 1969ko martxoaren 25–31

© Yoko Ono



8. Yoko Ono eta John Lennon

Gerra amaitu da! (War Is Over!), 1969

Iragarki panela New Yorkeko Times Square-n

© Yoko Ono



9. *Walking On Thin Ice* (bideo fotograma), 1981

© Yoko Ono



10. Yoko Ono *Gela erdia (Half-A-Room)* lanean, Lisson Gallery, Londres, 1967

Argazkia: Clay Perry © Yoko Ono



11. *Mozte lana (Cut Piece)*, 1965

Performancea, honako hau antzezle: Yoko Ono

Carnegie Recital Hall, New York, 1965eko martxoaren 21a

Argazkia: Minoru Niizuma

Honen eskaintza: Yoko Ono



12. *Goizeko izpiak / Ibai zola (Morning Beams / Riverbed)*, 1996

Lanen ikuspegia hemen: Israel Museum, 2000

Argazkia: Oded Löbl

© Yoko Ono



13. *Zeru lana Jesu Kristorentzat (Sky Piece to Jesus Christ)*, 1965

Orkestrarako performancea, honako hauek antzezle: Yoko Ono, La

Monte Young (zuzendaria) eta Fluxus Symphony

Orchestra, Carnegie Recital Hall, New York, 1965eko irailaren 25a

Argazkia: Peter Moore. © Barbara Moore/VAGA-k baimendua, New

York



Hezkuntza Jarduerak:

Helduentzako sormen saioak: *BURU LANAK*

Yoko Onoren ohorez tailer batzuk egingo dira, artistarentzako hitz gako batetik abiatuta. Argibide gehiago Museoren webgunean.

- Maiatzak 8, osteguna. *Imaginatuz: Bete jarraibideak!* Yoko Onok idatzitako *Grapefruit* liburuan oinarritutako tailerra da hau; izan ere liburu horretan jarraibideak idatzi zituen artelanak sortzeko.
- Maiatzak 15, osteguna. *Amets egin: Irudiak mugimenduan!* Argazkigintza eta bideo tailerra, giza gorputza gaitzat duena.
- Maiatzak 22, osteguna. *Hegaz egin: Banderak lau haizetara!* Tailer honetan egunerako objektuak eraldatu egingo ditugu munduari mezuak bidaltzeko.

Hezkuntza gune berriak eta Zero Espazioa. 18:00–20:00. Sarrerak webgunean eskuragai apirilaren 8an hasita: 15 € Publiko orokorra /12 € Museoren Lagunak. 18 urtetik gorakoentzako jarduera.

Ibilbideak

Ezagut itzazu erakusketa honetako obra esanguratsuenak, muntaiaren zokoak eta bestelako bitxikeriak museoko profesionalak gidatutako bisitaldi paregabe hauen bidez.

Arte ardura arloaren ikuspegia: *Yoko Ono. Half-a-Wind Show. Atzera begirakoa*

Martxoak 19, asteazkena: Álvaro Rodríguez Fominaya, Solomon R. Guggenheim Museumeko arte arduraduna

Funtsezko kontzeptuak: *Yoko Ono. Half-a-Wind Show. Atzera begirakoa*

Martxoak 26, asteazkena: Luz Maguregui, Hezkuntza eta Interpretazio Arloko koordinatzailea

Informazio-mahaia ordua: 18:30. 2€ Museoko lagunentzako, 3€ publiko orokorra. Ezinbestekoa da webgunean aurretik erreserba egitea.

Fundación Vizcaína Aguirrek babestua.

Orientatzaileak:

Bisitariak erakusketako aretoetan aurkituko dituen hezitzaile hauek artistari eta bere lanei buruzko argibideak emango dituzte. Asteartetik igandera ekainak 29 arte. 11:00–14:00.